fagorederlangroup

Hornitzaileen Jokabide Kodea

Fagor Ederlan Taldea



Berrikuspen zk.	Fecha	Berrikuspena
01	2024/11/21	Hornitzaileen Jokabide Kodearen lehen bertsioa. Kontseilu Errektoreak onartua.

HELBURUA

Fagor Ederlan Taldearen Hornitzaileen Jokabide Kode honen helburua da gure hornitzaileentzat agintzen duten printzipio, irizpide eta arauen aplikazioa definitzea eta sustatzea, jokabide etiko, legal eta jasangarriari dagokionez, eta gure balio eta printzipioen arabera jokatzen dutela bermatzea.

Jokabide Kode hau Fagor Ederlan Taldearen Jokabide Kodean oinarritzen da, eta gure hornitzaileen eragiketak sozialki, ekonomikoki eta ingurumen aldetik jasangarriak izatea du helburu, une bakoitzean aplikatu beharreko legedia betez.

APLIKAZIO EREMUA

Hornitzaileen Jokabide Kode hau Fagor Ederlan Taldearen Hornitzaileei aplikatzen zaie, eta eremu globalean du balioa, hau da, Hornitzaile batek lan egiten duen edozein herrialdetan du balioa. Jokabide Kode hau hornitzaileen paneleko egungo hornitzaileei eta horretan sartu nahi diren hornitzaile berriei aplikatuko zaie.

GIZA ESKUBIDEAK ETA LAN BALDINTZAK

Hornitzaile guztiek konpromisoa hartuko dute Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, Nazio Batuen Giza Eskubideen arloko Mundu Itunean eta Laneko Oinarrizko Printzipio eta Eskubideei buruzko LANEren Adierazpenean jasotako printzipioak, Nazio Batuen Enpresei eta Giza Eskubideei buruzko Printzipio Gidariak, ELGAren Enpresa Multinazionaletarako Jarraibideak eta euren jardun eremua den herrialdeko hitzarmenen betekizunak errespetatzeko.

Hornitzaileek berariaz debekatuko dute:

- Behartutako lanak eta lan nekezak; ez dira indarraz baliatuko eta ez dituzte langileak behartuko nahitaezko edo esklabotza lanak egitera.
- Gizakien trafikoa. Era berean, herritar atzerritarrak babestuko dituzte dagokien atzerritartasun araudia betez.
- Haurren lana; erabat debekatuta dago haurrak kontratatzea, eta, hori bermatzeko, langile guztien jaiotza data erregistro batean jasoko da.
- Mineralak gatazkan. Hornitzaileek mineralak modu arduratsuan lortzeari buruz aplikatu beharreko legeria bete beharko dute, eta gatazka guneetatik datozen mineralei buruz legez eska daitezkeen ikerketak egingo dituzte. Hornitzaileak Fagor Ederlan Taldeari jakinarazi beharko dio bere produktuetan sartutako mineralek izan dezaketen eraginari buruzko edozein informazio.

Hornitzaileek hau egin beharko dute:

- Bere langileak herrialde bakoitzean indarrean dagoen legediaren arabera kontratatu beharko dituzte. Lan jardunak edo lan egutegiak ez du legezko muga gainditu inola ere.
- Herrialde bakoitzean indarrean dagoen legediarekin bat datozen baimenak izan beharko dituzte (gaixotasunagatik, oporrengatik, amatasunagatik, jai ofizialengatik eta baliokideak).
- Beren langileei legez dagozkien onuren eskubidea ematea (mediku asegurua, gizarte segurantza, pentsioak eta baliokideak).
- Langileei lanbide arteko gutxieneko soldata ordaintzea gutxienez, herrialde bakoitzean aplikatu beharreko legediarekin bat etorriz, eta aparteko orduengatik konpentsatzea, lege eskakizunen arabera.

- Sindikatzeko eta elkartzeko askatasuna errespetatzea, bai eta lan arloko negoziazio kolektiboa eta langileen kanpoko jarduerak ere.
- Aukera berdintasuna eta diskrimizaziorik eza bermatzea, lana lortzeko eta laneko promozioan aukera berdinak eskainiz, horretarako sexu, orientazio sexual, arraza, desgaitasun, gaixotasun, erlijio edo diskriminazio iturri izan daitekeen beste edozein ezaugarrirengatik ezberdintasunik egingo ez dela ziurtatuta une oro.
- Tokiko komunitateen eskubideak errespetatzea, haiei lurra, basoak eta ura eskura izatea ahalbidetuta, eta ez dute onartuko gutxiengoak eta herri indigenak euren lurretatik nahitaez kanporatzea.
- Ez onartzea Segurtasuneko langileek enplegatuekin edo hirugarren aldeekin edozein eratako jokabide ez-zilegiak izatea, eta ahal den guztia egitea segurtasun zerbitzuen hornitzaileak giza eskubideak errespetatzera behartuta egon daitezen kontratu bidez, eta aholkularitza eta prestakuntza egokia jaso dezaten beharrezkoa den guztietan.

LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Fagor Ederlan Taldean, langileen segurtasun eta osasunak du lehentasuna. Horregatik, hornitzaileak ziurtatu beharko du langileek lana modu seguruan egiteko nahikoa prestakuntza izango dutela. Hornitzaileek lan arriskuen arloko jarduketa egokiak egin beharko dituzte prebentzioaren eta etengabeko hobekuntzaren ikuspegiarekin, langileei lan leku eta prozesu seguru, garbi eta osasungarriak emateko, herrialde bakoitzeko legeria aplikagarria betez. Horrela, enplegatuei euren jardun profesionala segurtasun, ergonomia eta higienearen aldetik neurri egokiekin gauza dezaten beharrezkoak dituzten bitartekoak emango dizkie, pertsonen bizitza, osasuna eta osotasun fisikoa arriskuan egon ez daitezen.

USTELKERIAREN AURKAKO POLITIKA

Fagor Ederlan Taldeak osotasuna eta etika sustatzen ditu bere jarduera guztietan, eta ustelkeria, eroskeria edo estortsio ekintzen aurkako zero tolerantzia aitortzen du, baita zuzenean edo zeharka edozein abantaila mota eskaintzearen edo agintzearen aurka eta influentzia trafikoaren aurka ere.

Ondorioz, hornitzaileek honako hauek egin beharko dituzte:

- Beren jokabidearekin ez dituzte partikularrak, agintariak edo funtzionario publikoak bultzatuko inpartzialtasunez jokatzeko duten betebeharra edo edozein lege agindu urratzera.
- Ez dituzte eskainiko ohiko praktika komertzialetatik edo kortesiazkoetatik harago doazen eta erabaki komertzialetan bidegabeki eragin dezaketen opariak.
- Interes gatazka eragin dezakeen edozein egoera saihestuko dute eta edozein interes gatazka potentzialen berri emango diote Fagor Ederlan Taldeari.
- Inportazio eta esportazioko jardueretan hornitzaileek bermatuko dute aplikatu beharreko legediak eta gainerako operadoreek ezarritako kanpoko araudiak ondasunen inportazioari eta esportazioari buruz eta zerbitzuei eta informazioari buruz ezartzen duten guztia betetzen dela.
- Erabat debekatuta dago dagozkien herrialdeetako zehapen zerrenda ofizialetan agertzen diren pertsonekin edo enpresekin negozioak egitea, entrega prozesua edozein dela ere. Berariaz debekatuta daude kontrabandoarekin zerikusia izan dezaketen jarduerak.
- Hornitzaileek une oro beteko dituzte kapitalak zuritzeari eta terrorismoa finantzatzeari buruz aplikagarriak zaizkion lege nazional eta nazioarteko guztiak.

- Hornitzaileek metodo eraginkorrak eta prozesu egokiak garatu, ezarri eta edukiko dituzte beren produktuetan, entregatzen dituen produktuetan faltsututako piezak eta materialak sartzeko arriskua ahalik eta gehien murrizteko.
- Hornitzaileek lehiaren abusutzat edo zilegi ez den murrizketatzat jo daitekeen edozein jokabide mota ekidingo dute.

INGURUMENA

Hornitzaileek ingurumena zaintzeko konpromiso aktiboa eta arduratsua hartzen dute, lege eskakizunak errespetatuz, beren jardueraren ingurumen inpaktua murrizteko. Horregatik:

- Baliabideak modu iraunkorrean erabiliko dituzte, energiaren, uraren eta lehengaien kontsumoa murriztuz eta energia berriztagarriaren erabilera sustatuz.
- Berotegi Efektuko Gasen emisioak murriztuko dituzte.
- Zirkulartasuna sustatuko dute, materialen eta hondakinen murrizketa, berrerabiltzea eta errebalorizazioa/birziklatzea bultzatuz.
- Kutsadura akustikoa saihestuko dute, zarata industrialaren mailak kontrolatuz.
- Produktu kimikoen kudeaketa arduratsua egingo dute, produktuak fabrikatzeko prozesuetan substantzia mugatuen erabilera identifikatuz, minimizatuz eta ahal dela ezabatuz, une oro araudia betetzen dela bermatuta.
- Ingurumena babesteko prozedura egokiak izango dituzte, besteak beste, airearen kalitatea, ura, lurzorua, biodibertsitatea, lurraren erabilera eta deforestazioaren prebentzioa aintzat hartuta.

INTIMITATEAREN BABESA. DATU PERTSONALEN ERABILERA

Hornitzaileek pertsonen intimitate eskubidea errespetatuko dute, bere adierazpen guztietan, baita Internet bidez edo beste komunikabide batzuen bidez pertsonen gaineko komunikazioetan ere. Bereziki, datu pertsonalen pribatutasuna eta haien gaineko eskubideak errespetatuko dira, bai eta aplikatu beharreko datuen babeserako araudia ere.

Ondorioz, hornitzaileek konpromiso hauek hartuko dituzte:

- Tratatzen dituzten datu pertsonalak babesteko konpromisoa, eta datu pertsonalak ez zabaltzekoa, horretarako legitimazio oinarri egokia egon ezean.
- Datu pertsonalak ez dira tratatuko hasieran jasotako helburuetarako ez beste batzuetarako, legez baimendutako kasuetan izan ezik.
- Datu pertsonalen tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen duten hornitzaileen mendeko pertsonek konfidentzialtasuna betetzeko beharra izango dute. Konfidentzialtasun betebehar horri eutsiko zaio hornitzaileekiko harremana amaitzen denean ere.
- Tratamenduaren arduradunak direlako Fagor Ederlan Taldearen kontura datu pertsonalak tratatuko dituzten hornitzaileek tratamendurako enkarguko kontratuan ezartzen denaren arabera tratatuko dituzte datu horiek.
- Hornitzaileek kontu handienaz erabiliko dute Fagor Ederlan Taldearen Informazio Konfidentziala, eta informazio hori babesteko bitarteko nahikoak jarriko dituzte. Informazio horren edukia, gainera, ezingo die hirugarrenei eman, kasu bakoitzean eskumena duen Fagor Ederlaneko pertsonaren edo organoaren berariazko baimena izan ezean edo informazioa legez edo epai bidez errekeritu ezean.

FAGOR EDERLAN TALDEAREN JABETZAREN BABESA ETA ERABILERA

Fagor Ederlan Taldea jabetza intelektualarekin eta industrialarekin eta enpresa sekretuak babestearekin konprometituta dago, berdin dela bereak zein hirugarrenenak izan.

Hornitzaile guztiek jabetza intelektual eta industrialeko eskubideen eta enpresa sekretuen titular legitimoak errespetatu behar dituzte.

BETETZE BATZORDEA

Hornitzaileen Jokabide Kodea betetzea da Fagor Ederlan Taldearen Hornitzaile guztiek duten betebeharra.

Hornitzaileek Hornitzaileen Jokabide Kode honetan jasotako betebeharren berri eman beharko dute dagozkien hornidura kateetan.

Fagor Ederlan Taldeak eskubidea du Hornitzaileen Jokabide Kode honetan xedatutakoa betetzen ez duen edozein kontratu amaitzeko.

Fagor Ederlan Taldeak araudia betetzeko duen konpromisoaren erakusgarri, Informaziorako Barne Sistema bat du ezarrita, arau hauste penal edo administratibo larri edo oso larri diren ekintzei edo omisioei buruz (Europar Batasuneko zuzenbidearen arau hausteak barne) edo Jokabide Kodearen ez-betetze edo ez-betetze zantzuei buruz informazioa emateko bide gisa eratua.

Informaziorako Barne Sistema hau informatzaileen eta lotutako hirugarrenen nahiz komunikazioaren eraginpeko pertsonen printzipio, berme eta eskubide batzuk betez eratu da, konfidentzialtasunean, errepresalien debekuan eta aplikatu beharreko legeriak eskatzen dituen gainerako baldintzetan oinarrituta.

Era berean, hornitzaileek Informazioko Barne Sistemak edo kanal etikoak edo salaketakoak izan beharko dituzte, pertsonek Hornitzaileen Jokabide Kode hau betetzen ez badute modu konfidentzialean eta errepresaliarik gabe komunikatu ahal izateko. Hornitzaileek dituzten Informaziorako Barne Sistema horiek edo kanal etiko edo salaketa kanal horiek aplikatu beharreko legeen eskakizunak bete beharko dituzte.

Fagor Ederlan Taldeak eskubidea du bere hornitzaileek Jokabide Kode hau betetzen dutela egiaztatzeko. Egiaztapen hori, non hornitzaileek lagundu beharko duten, hainbat baliabideren bidez egin ahal izango da, hala nola autoebaluazio galdetegien bidez, behar bezalako aurrerapenarekin jakinarazita hornitzailearen instalazioetan auditoriak eginez, edo ospe handiko jasangarritasun plataformetan *ratinga* kontsulta eginez.

Hornitzaileen Jokabide Kode hau egungo arau esparrura egokituta dago, gure erakundean indarrean dago eta FAGOR EDERLAN Taldearen Compliance Programaren parte da.

Zurekin partekatzen dugu zure enpresak harekin bat egin dezan, eta kodea betetzeko konpromisoa ez ezik FAGOR EDERLAN TALDEAK kontratatuta zerbitzuak ematen dituzten bere erakundeko pertsonen arten zabaltzeko konpromisoa ere hartzeko, legez kanpoko edozein jarduera saihesteko eta prebenitzeko.

Jokabide Kode hau benetan eta eraginkortasunez aplikatzekoa da, beraz, gure enpresarekin lotura zuzena duten pertsona guztiek bete behar dute derrigor.

Besterik gabe, eta dokumentu hau izenpetu eta gero guri bueltatzeko eskatuz, agur bero bat.

FAGOR EDERLAN GROUP

Hornitzailearen izen soziala:

Hornitzailearen legezko ordezkariaren izen-abizenak:

Onarpen data:

Sinadura eta zigilua: